

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

26/2020 Mozioa, ekainaren 10ekoa, bidaiarien foru garraioari eta COVID-19aren ondorioz sortutako krisi soziosanitarioaren ondorioz hartu beharreko neurriei buruzkoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

26/2020 Mozioa, ekainaren 10ekoa, bidaiarien foru garraioari eta COVID-19aren ondorioz sortutako krisi soziosanitarioaren ondorioz hartu beharreko neurriei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute Mugikortasunaren eta Bide Azpiegituren Sailak, bertako teknikariek eta langileek egindako lana eta ahalegina, baita Arabako gizartearen onurarako mugikortasunaren arloko foru eskumenak garatzeko sail horrek kudeatzen dituen garraio publikoko zerbitzuen enpresa esleipendunetako langile eta zuzendaritza-taldeetako kideek egindakoa ere, eraginkortasunez bete baitituzte pandemiari aurrea hartzeko osasun-jarraibideak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Mugikortasunaren eta Bide Azpiegituren Sailari eskatzen diote alarma-egoera bukatu ondoren eta abian dagoen bilkura-aldia bukatu baino lehen batzordeari jakinaraz diezaiola zer neurri ezarriko diren COVID-19ari aurre egiteko profesionalak, langileak eta erabiltzaileak bete beharreko segurtasun-protokoloak eta -neurriak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Mugikortasunaren eta Bide Azpiegituren Sailari eskatzen diote abenduaren 31 baino lehen batzordean azal dezala zer neurri hartuko diren Arabako Lurralde Historikoan mugikortasun jasangarrirako estrategia bat sustatzen eta garatzen jarraitzeko, baita zer lan egingo diren ere Arabako Garraioaren Lurralde Agintaritza sortzeko; Agintaritza horrek izaera juridikoa eduki beharko du gure lurraldean, administrazio guztiekin adostuta, eta ardatz izan beharko ditu intermodalitatea eta ALHn jarduten duten garraio publiko mota guztien arteko tarifa-integrazioa.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, erakundearen komunikazio-estrategiaren barruan, Arabako herritarrei jakinaraz diezaiela COVID-19aren ondorioz garraio publikoan ezarri diren segurtasun-protokolo eta -neurri berriak zein diren, eta transmiti dezala zeinen garrantzitsua eta beharrezkoa den foru garraio publiko seguru, osasungarri eta jasangarria izatea, ibilgailu pribatuen erabilerari alternatiba bat eskaintzeko gai dena, gizarte-kohesioa hobetu eta lurralde-oreka erdiesteko faktore gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 10a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA